



BETERRIKO ALDIZKARIA



AIURRI

1995eko abenduaren 15a. 26. zenbakia. Dohain banatzen da.



Eguberri on!



Epe Segurua % 150

Zure hurrengo errentaren gaineko Aitorpenak bukaera ezitsua izan dezan.



EGUBERRI jai zoriontsuak opa dizkizue...

ALFARO

j a t e t x e a

Abenduak 24tik
Urtarrilaren 8rarte itxita
izango dugu

EUSKALDUNA
futbol taldeak
kanpan jokatzen
duenean itxita
izango dugu

Etxeberrieta auzunea
☎ 59 450 27

A N D O A I N

MAPFRE ASEGURUAK



*ONDO PASA GABONAK
eta
URTE BERRI ON*

Xabin Mujika Tolaretxipi

Kale Berria, 11 - Tel.: 30 06 99
Dr. Huizi kalea, 4 - Tel.: 59 23 07
Faxa. 30 00 85
ANDOAIN

Olajauña
TABERNA

Zumea, 4 - Tel.: 30 02 29 ANDOAIN

**ETXEKOENTZAKO
APARTEKO
OGIA**



Kale Nagusia, 19 - Tel.: 69 17 11
BILLABONA

JATETXEA - TABERNA



☎ 69 04 47 - ZIZURKIL

ESPEZIALITATEAK:

- EUSKAL SUKALDARITZA
- ARRAIN ERREAK
- EGUNEROKO BAZKARIAK
- JANARI MEXIKANOA
(Aldez aurretik deituta)

ADI LAGUNOK!!

*"Laister izango dugu
SAGARDOA txiritik"*

Aurkibidea

1. **AURKIBIDEA.**
AIURRITARRAK
Txomin Garmendia: Gabon Eguberriak.
2. **INKESTA.**
Eta zu, joaten al zara Durangoko azokara?
3. **ADUNA.**
Bukatu dituzte babes ofizialeko etxebizitzak.
- 4-5. **ANDOAIN.**
Gutxitu psikikoentzako tailerra.
Pekingo hausnarketak herrira.
6. **ASTEASU.**
Baserri babestuaren inagurazioa.
7. **BILLABONA - AMASA.**
Ongizate asmo berriak.
8. **ZIZURKIL.**
Eguraldiaren gora-beherak.
9. **ENPRESA.**
IZ disketxea Billabona-Amasan.
- 10-11. **ERREPORTAIA.**
Kixmi jaio da.
- 12-13. **KULTURA**
Asteasuko J.B. Agirrerren lehen biografia liburua.
14. **ERRETRATU ZAHARRA.**
Andoingo Larramendi ikastola. 1963-64.
15. **ZE BERRI? / LEHIAKETA.**
16. **AGENDA.**

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31
Babesleak: Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Antxiñe Mendizabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia.
Erredakzioa: Antxiñe Mendizabal eta Ainhoa Oiarzabal
Argazkiak: Manu Mujika **Komikia:** Iñaki G. Erro.
Publizitate arduraduna: Mailu Ibarbia. **Banaketa arduraduna:** Iñosken Mujika. **Administratzaile-eragilea:** Kepa Sarasola. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati). **Filmaketa:** VideoCys, Donostia. **Legogordailua:** SS-202/94 ISSN: 1134-0614
Tirada: 3.500 ale.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



Aiurritarrak



TXOMIN
GARMENDIA

GABON EGUBERRIAK

Aiurritarren dei bat jaso det, ea Gabonai buruz zerbait idatzi ote nezakean alegia. Borondaterik onenez beroien gogoia betetzera nijoala esan bear beste ezer baiño len.

Beste jai edo pestak ez duten zerbait badute GABON-EGUBERRIAK. Berezitasun oien berri danok dakigu ordea eta zertarako berritu? Bertsolari bezela orain berrogei bat urte zer ibillaldiak izaten genitun esan nai nituzke nere atal apal ontan.

Gaur ere bai noski, baiña bertsotan asi berri artan izaten diran deiak pozgarriak benetan. Ala, soldadu joan aurretik, Albiztur'erako deia jaso nun Gabon-Eskean ibiltzeko. Ango eske-lagunak nere kidekoak ziran eta oitura zan, bazkalondan erten basarri-basarri eta Eguberri goizean zortziretako mezeta etortzekoa eske-lanak bukatuz. Gaur baiño sasoi ohea gendun eta bai bearra ere ala ibiltzeko. Astiasu'ko Eleuterio Tapia zana (G.B) gendun soiñujole lenengo joanera artan, eta ondorenean izan nintzan guztitan. Taldean ibiltzen giñan bat baiño geiago badira munduko lanak egin zituztenak. Goza bezate danak betiko atsedenean.

Leku malkar eta aldapatsutan izaten zan ibillaldi ori, Albiztur alako parajea dalarik. Eguraldi ona baldin bazan, alako adiña ere-ta, ez giñan izango neke bildur; baiña askotan bisutsa, euria edo kazkabarra izaten zan eta orduan komeriak!

Albiztur'en, erri ingurua pasa eta Santutxo'ra bilduko giñan apaltzera; ala apaldu, alaitasun ederrean jarri, Urkizu aldera abiatuko giñan. Mendiz-mendi jakiña, eta illargi ona baldin bazan gaitzerdi. Ederki aspertuta iristen giñan zortziretako mezeta. Nola soiñujoleak ala bertsolariak soldata polita irabazten gendun, baiña ez musu-truk!

Meza entzun eta baratzuri-zopa izaten gendun gosaria Udaletxeko tabernan. Orduan ostatu ura, Peñagarikano bertsolariaren gurasoak zeukaten eta gero ain bertsolari aundi izango zan mutiko txikia, gure inguruan pozik ibiltzen zan berak aitorzen dunez. Izan ere ortarako zaletasuna, jaiotzatik etorri bear du.

Albiztur'en, iru talde ibilli izandu giñan; gogoan det, talde batean Mitxelena zana (G.B.) eta "Lexoti", zituztela bertsolari eta bestean, Errezil'ko Goena. Au ere il zan eta pakean dezala atsedean. Ez dago esan bearrik irugarrengan ni nintzala.

Gosari ondorenean lotara joango giñan eta arratsaldean, pesta izango zan eskean ibillitako soiñujole eta bertsolariakin.

Gaurko berririk ez det; baiña orduan ala izaten ziran Albiztur'ko GABON-EGUBERRIAK.



Aldizkari honek Euzko Jaurjaritzako Kultura sailaren laguntza jaso du




Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuaren laguntza jaso du.

ETA ZU, JOATEN AL ZARA DURANGOKO AZOKARA?

Abendua iritsita, jai usaina hartzen hasten zaie egunei. Konstituzio Eguna lehenengo, Ama Sortzez Garbiaren Eguna ondoren, eta aldi berean urteroko Durangoko euskal liburu eta musika azoka. Klean galdetuta, zalantzarik ez, ezaguna da azoka. Durango-ra aldiz, guk uste baino jende gutxiago joaten da, hau da guk uste baino beterritar gutxiago, izan ere

bertaratzen direnek jakingo dute urtetik urtera azokan libururik edo diskarik patxadan begiratzea nekezago bihurtzen ari dela. Durango hemendik urruti samar dagoela esan digute batzuek, eta beste batzuek berriz, lehen joaten zirela, baina, zailtasunak direla medio, joateari utzi diotela. Azoka ezagutzen ez duenik ere aurkitu dugu.



IZARO IRIONDO, IKASLEA. ANDOAIN

Diskan azoka horri buruz ari zara, ezta? Ezagutzen dut, bai, telebistan ikusi izan ditut irudiak. Ez naiz inoiz joan, ez. Gustatuko litzaidake, baina Durango urruti samar dago. Aurten, beharbada...



NAIARA OLANO, IKASLEA. BILLABONA.

Ez naiz inoiz joan, ez dut ezagutzen. Hala ere, euskal musika asko gustatzen zait eta liburuak ere irakurtzen ditut. Beraz, gustora joango nintzateke azokara zer dagoen ikustera eta gehienbat, musika taldeen diska berriak entzutera.



GARIKOITZ AGIRREZABAL, IKASLEA. ASTEASU.

Behin ere ez naiz joan. Aukera banu, beharbada, joango nintzateke... (esan digu duda-mudan). Liburuak, eskolan bidalitakoak soilik irakurtzen ditut, ez zaizkit asko gustatzen. Musika aldiz, oso gogoko dut. Eta nahiz eta talde erdaldunak gehiago gustatu, jaietan etortzen diren euskal taldeak ere gustoko ditut.



IMANOL ZUGASTI, LANGILEA. ZIZURKIL.

Ezagutzen dut baina ez naiz inoiz joan, ez dut denborarik; nahiago ditut ehiza edo mendia. Ez dut irakurtzeko ohiturarik eta beraz, ez dut merkatura atera diren liburu berrien jarraipenik egiten. Musika aldiz asko gustatzen zait, baina entzutea soilik, ez dantzatzea.



TIBU IRADI, UDALTZAINA. ANDOAIN.

Ezagutu, ezagutzen dut baina ez daukat joateko ohiturarik. Behin baino ez naiz joan, orain dela denbora dextente. Bururatu izan zaigu joatea; giro polita izaten da. Baina ume txikiekin beti ere zailagoa da, eta gainera, asteburuan jendez gainezka egoten da hura. Horregatik ez gara azkenengo urte hauetan joan.



JOSUNE GERRIKAGOITIA, ETXEKOANDREA. ADUNA.

Durango ingurukoa naiz eta beraz, ezagutzen dut bertan egiten den azoka. Behin edo beste egon naiz, denbora izan dugunean joan izan gara. Gauzak ikustera eta eroatera joaten gara. Irakurtzeko ohiturarik ez dut, baina musika beharko gustatu! Senarra musikoa da.



BORDA
Jateetxea

A N D O A I N



ILEAPAINDEGIA

GARBIÑE

Bulandegi kalea 13 - 3ºD
Tel. 69 05 99 ZIZURKIL



BUKATU DITUZTE BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK

ZABOR BILKETA SISTEMA AITZINDARIA EUROAPAN

Iazko udaberrian hasi zituzten lanak eta duela gutxi bukatu dituzte. Lau bloketan banatutako hamasei etxebizitza egin dituzte, bloke bakoitzean launa etxebizitza daudelarik. Hogeita bat garaje ere eraiki dituzte. Adunan bizi-zeko aukera eskaini nahi izan zaie herritarrei babes ofizialeko etxebizitzaren bitartez.

Hamabi etxebizitzek hiru logela, egongela eta sukaldea dituzte. Batzuek bi komuna dituzte eta beste batzuek berriz, bakarra. Bloke bakarra osatzen duten lau etxebizitzek aldiz, bi logela eta komuna bakarra dituzte. Azken etxebizitza hauek zazpi miloitan erosi dituzte eta aurrekoak, hamar miloitan. "Belkoain" kooperatibak, erosleak beraien osatuta, eragin dute eraikuntza eta inongo arazorik gabe moldatu direla esan digute. Hogeita bat garaje ere egin dituzte, baina horietatik erdiak bakarrik dira etxebizitzaren jabeentzat. Besteak, salgai daude erosi nahi duen edonorentzat.

Babes ofizialeko etxebizitzak herritarrei bertan gelditzeko erraztasunak eman asmoz egin dira. Zortzi etxebizitzaren jabeak herritarrek dira eta beste zortziak kanpotarrak.

INGURUAREN URBANIZAZIOA

Gas propanoz hornituko dira etxebizitzak eta herriko beste batzuk ere; guztira, berrogeita bat etxebizitza. Bestalde, eta Udalaren ekimenez, bide berri bat eta aparkalekua egin dituzte etxebizitzaren alboan. Hemendik aurrera herrira sartu eta ateratzeko bide berria erabili beharko dute bertako bizi-



Amaitu berri dituzte lanak

lagunek eta inguruko herritarrek. Horrezaz gain, ur garbia eta zikina hodi berezietan banatuko dira. Horrela, etorkizunean ur zikina garbitzeko ekimena martxan jartzean ez dute inolako lanik egin behar izango etxebizitza berri hauetan.

Aipatu beharrekoa da ere zaborra biltzeko jarri dituzten biltegi bereziak. Aduna zabor biltzeta sistema hau ezarri duen lehenengo herria da Europan.

Irla ekologikoa deritzen zabor biltzeta sistema datorren urtetik aurrera hasiko da martxan. Zaborra lur azpian gordetzen da eta zerbitzua hogeita lau ordutan erabil daiteke. Herritar guztiek erabili ahal izango dute sistema aurreratua hau.

Bestalde, inguru berean etxebizitza gehiago egiteko egitasmoa aurreratu digu Udalak. Azken hauek, hala ere, ez dira babes ofizialekoak izango.

OHARRA

"Zerga berrien nondik norakoak" albistean hutsegite batzuk egin genituen aurreko ale batean. Honako zuzenketa hauek egin nahi ditugu:

- Zaborraren eta uraren zerga, tasa kontzeptupean kobratzen zaie herritarrei, industria eta etxebizitzak bereiztuz.
- Etxebizitzaren zaborraren zerga %5 igoko da eta industriarena berriz, ez da igoko.
- Ura erabiltzen dutenek ibaiak garbitzeko egitasmoaren kostuaren %30a ordaindu beharko dute; ez ekimenaren gastu guztia.



KARROZERIAK LAGUNAK^S

TXAPA ETA PINTURA
EGA ZERBITZU OFIZIALA
FURGOI ISOTERMIKOAK
HOZKAILUAK

SORABILLA AUZOA - 53. POLIGONOA - ☎ 59 44 48 - ANDOAIN

07SAB9

Etxebizitzaren salerosketa

Kale berria, 58 ☎ 69 08 94 BILLABONA



GUTXITU PSIKIKOENTZAKO TAILERRA

APILEA ELKARTEAREN EKIMENEZ SORTU DA GIPUZKOAKO LEHENENGO TAILERRA

Orain dela urtebete sortu zen APILEA elkarte, Andoaingo gutxitu psikikoen gurasoen elkarte, eta urtebetez gogor lan egin ondoren lortu dute Gipuzkoa osorako ikastaro tailerra herrian sortzea. Momentuz bi ikastaro egingo dira: tapiz eta informatika ikastaroak. Ikastaroen helburua lan munduan sarrera errazteko lehenengo urratsa ematea da.



Gogoz ekin diete ikastaroei

Ikastaroak hasia herriak dira. 18 urte gorako neska-mutilak herrikoak nahiz kanpokoak hasi dira, eta dohainik eskaintzen dira irakasle eta begiraleen ardurapean. OHO egin da daukate ikasleetako batzuek, beste batzuk berriz helduen eskolan ari dira gaur egun parte hartzen. Dena den, ikastaroan parte hartzeko baldintza bakarra gutxitu psikikoa izatea da. Gipuzkoako edozein herritarrek har dezake parte.

APILEA elkarteak Josep Palau-rekin hitz egin dugu eta elkarteak Udalarekiko daukan kexa agertu digu: "Ikastaroak asko atzeratu dira eskatzen genion aulkia eta ordenadorea uzteko eta elbarrientzako ranpa egiteko denbora asko behar izan duelako".

EGIN ETA SALDU

Tapizak egin eta ondoren saltzeko asmoa daukate. Esperientzia ona izanez gero, kooperatibaren bat ere osatu dezaketela pentsatzen dute. Gureak, Katea eta beste tailer batzuk izaten dira horrelako neska-mutil askorentzat lan mundura bideratzeko aukera. Gaur egun ordea, lan handirik ez dago, eta horrelako tailerraren batean sartzeko bi urte gutxienez itxaron behar izango dutela pentsatzen dute. Egitasmoa finantzatzen duen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak adierazi duenez, Andoaingo esperientziaren balioa ikusita, litekeena da hurrengo urteetan beste herri batzuetan horrelako tailerrak antolatzea.

BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN ZOZKETA

15 ETXEBIZITZA 35 LAGUNENTZAT

Rikardo Arregi kalean koartela zeneko eraikuntzan eraberritu dituzten etxebizitzak herrian egin diren babes ofizialeko lehenengoak dira. Zozketa egunean eskaria egiteko baldintzak onartu zitzaizkien 35 lagunak bildu ziren udaletxeko areto nagusian, urduri gehienak eta itxaropentsu denak.

Notaria eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza saileko ordezkaria den Martin Arregi San Miguel egon ziren alkatearekin eta idazkariarekin batera zozketa unean. Eusko Jaurlaritzak adierazi zuenez zozketan kide bakarrez edo bi lagunaz osatutako familiei eman nahi izan zaie lehentasuna.

Ramon Oiartzabal Zelarain izan da zozketan aukeratuetakoa bat. Leitzarain ikastetxeko atezaina den Ramonekin hitz genuen zozketa ondoren. Pozik egoteko motiborik ere bazuen, eta irribartsu erantzun zien gure galderei. Leitzarain ikastetxean egokitutako etxebizitza batean bizi izan da orain arte bost urte barru jubilatuko den andoaindar hau, eta etorkizunean bertan jarraitzeko modurik izango duen ez dakienez, eman zuen etxebizitzak eskuratzeko izena. Oraindik ez omen du etxebizitza ikusi, baina emaztea eta berarekin daukan lau seme-alabak aurki joango dira etxe berrira.



RUBEN GELBENZU ATXILOTU DUTE LISKARRA KALEETAN

Azaroaren 28an atxilotu zuen Goardia Zibilak Ruben Gelbenzu gazte andoaindarra. Manifestazioak izan ziren hurrengo bi egunetan ondorioz. Gaur egun Martutenean dago andoaindarra preso.

Protesta egunetan herritar batzuek PSE-EEko egoitza eta batzokia harrira egin zituzten, paper kontainerak erre zituzten eta pintadak egin zituzten hainbat kaletako eta udaletxeko hormetan. Ertzaintzaren eta gazte talde baten arteko liskarrik ere ez zen falta izan.

Ruben Gelbenzu 1993ko irailean atxilotu zuten aurrenekoz Gurutze Iantziaren eta Xabier Kalparsororen heriotzaren aurkako protesta ekintzetan parte hartzeagatik eta epaitu ondoren bi urte eta lau hilabeteko kartzela zigorra ezarri zioten.



PEKINGO HAUSNARKETAK HERRIRA

TXARO ARTEAGA: "POLITIKA PLAZARA" SAIOKO LEHENENGO GONBIDATUA

EAJ-PNVko Uri Buru Batzarrak antolatuta, Emakundeko zuzendaria den Txaro Arteagak emakumeen egoeraz eta eskubideetaz hitz egin zuen Pekinen izan zen Emakumei Buruzko IV. Kongresua abiapuntutzat hartuz. "Politika plazara" deituriko egitarauari jarraituz hilero izango dira herrian gaur egun pil-pilean dauden politika gai ei buruzko hitzaldiak. Punta-puntako hizlariak izateaz gain, bileretan herritarren partehartzea eta hausnarketa ere bilatzen dute antolatzaileek. Hilaren 22an aber-tzaletasunaren egoeraz eta etorkizunaz hitz egiteko Kepa Aulestia poli-tikaria izango da herrian.

Lekuan lekuko estrategia zehatze-tan bideratzea izan du Pekingo mun-du mailan egindako hausnarketak hel-burutzat. Eta hain zuzen ere, asmo ho-ri jarraituz Eusko Jaurlaritzak aurki onartuko du Emakundek egindako emakumeentzako ekintza positiboen II. plangintza: "Izan ere, Pekingo kon-ferentzian, ikerketak eta hausnarketak baztertu gabe, urrats berri bat eman eta ekintzetara jo behar dela ikusi dugu", adierazi du Emakundeko zuzendariak.

Ekintzez gain ordea, Nazio Batuen Erakundeak 1979. urtean onartutako emakumeen eskubideak eta diskrimi-nazioaren aurkako aldarrikapena jasotzen zuen agiria onartzeko 40 estatu-nazio falta ziren, EEBB barne. Pekinen

aurrerapauso handia eman da Txaro Arteagaren ustez, izan ere herrialde kon-fesionalek batez ere, gai batzuekiko agertu zuten zenbait salbuespen alde ba-tera utzita, agiria onartzea lortu da.

HIRUGARREN MUNDUKO EMAKUMEEN INDARRA

Herrialde txiroenetako emakumeen indarra eta pragmatismoa azpimarratu zuen Txaro Arteagak hitzaldian: "Mendebaldeko emakumeen epeltasunare-kin alderatuz, beraiek argi eta garbi al-darrikatzen dute emakumeek botere guneetan egon behar dutela". Dena den, herrialde horietan aurrera egite-ko daukaten errekurtsio falta ere adie-razi zuten, eta horregatik, Arteagak oso garrantzitsutzat jo zituen akordioak ere

hartu dira Pekinen: herrialde txiroei la-guntzak handitu, eta bideratzen diren laguntzetan emakumeak behar duen lekua izan dezan egin behar den aha-legin berezia kontuan hartu.

3.000 lagun baino gehiago bildu ziren erakunde ez gubernamentalen bilkuran argi geratu da, Emakundeko zuzendariaren iritziz, gaur egun emakumeek daukaten indarra. Beste-tik, estatu gailur gisara elkartu ziren 185 ordezkarien partehartzeak emaku-meen eskubideen aldarrikapenak duen dimentsio politikoa eta administrazio-nabarmendu zuen. EAE mailan zehaz-ten diren egitasmoak Udaletako poli-tiketara gauzatu behar direla esanez amaitu zuen Txaro Arteagak hitzaldia.

36KO GUDARIEI OMENALDIA

EAJ-PNVko Uri Buru Batzarrak Gerra Zibilan parte hartu zuten gu-dariei omenaldia eskaini nahi die: "Demokrata eta nazionalistok nor-banakoan eskubideen eta herri es-kubideen alde agertuz, demokrazia-ren defentsan borroka egin zuten herritarrei omenaldia eskaintzeko betebeharra daukagu", diote.

Afari-omenaldia eskainiko zaien hainbat herritarren izenak izan arren, oraindik ere zerrenda erabat osatzeke daukatela pentsatzen dute. Horregatik herritar guztiei dei egi-ten diete inoren izenik jasotzeko bat-zokia egunero egongo dela irekita 18.30etaik 20.30etara. 59 26 01 tele-fonora deituz ere jasoko dituzte ize-nak.

Gudariez gain altxamendu faxis-ta gertatu zeneko urtean udal gober-nuan zeuden agintariak ere omen-du nahi dituzte. "EAJ-PNVk ezezik herritar horiekiko Andoain osoak ere erantzukizuna baduela uste dugu. Omenaldiaren bitartez, hein batean, Andoainek herritar horiek-in daukan zorra kitatu nahi du", adie-razi digute.



Txaro Arteaga eta Garbiñe Egibar

Joxe Ramon

Taberna

PINTXO EDERRAK !!

KALE NAGUSIA, 16 - ANDOAIN

HERCULES

Aseguruak ARGENTARIA

Amalia Kortajarena

Bulandegi bidea, 6 - Telf. eta Faxe 69 37 34

Z I Z U R K I L



BASERRI BABESTUAREN INAGURAZIOA

TABERNA ZERBITZUA ESKAINIKO DU

Julian Lizardi izena jarri diote abenduaren hiruan inaguratu zuten baserri babestuari. Diputazioko Ongizate saileko zuzendaria den Maria Luisa Aranbururekin batera, inguruko herrietako alkateek eta zinegotziek hartu zuten parte inagurazioan. Gainera, Jose Maria Setien Gipuzkoako apezkikua herrian zegoela eta, bedeinkatu egin zuten gizarte ongizate zerbitzua ere eskaintzen duen baserri babestua.




Ongizate batzordeko Udal langile batek dantzatu zuen aureskua baserria inaguratzera etorritako gonbidatuen aurrean. Idiazabalgo alkatea ere gonbidatuen artean egon zen, egitasmoaren nondik norakoak ezagutu nahian etorria. Ondoren, baserriaren izena jartzten duen plaka azaldu zuten Maria Luisa Aranburuk eta Iñaki Amenbar alkateak, eta berehala, baserriaren atean zegoen zinta moztu zuten. Jarraian, Setien gotzainak baserria bedeinkatu zuen eta herriko dantzariak saioa egin ondoren, barrura sartu ziren gonbidatuak eta ehun herritar inguru. Baserria goitik behera ikusi ondoren hamaiketako egin zuten bertan bildutakoek.

Setien gotzaiarekin bertan izan zen

GABONETARAKO MARTXAN

Gutxi barru aldatuko dute etxez eskaera egin duten bi lagunek. Oraingoz, jangela martxan jarri bitartean, jana jartzera eta garbiketa lanak egitera laguntzaile bat joango zaie. Gizarte zerbitzuko gela berriz, erabiltzeko prest dago. Orain, taberna martxan hasteko enkantean jartzea besterik ez da falta eta urte hasierarako taberna zerbitzua eskainiko dute.




• kutxa fundazioa
• fundación kutxa


- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



DURANGOKO AZOKAN



Egunkaria



95eko abuztuan EGUNKARIAN
Pako Aristik, Itxaro Bordak, Juan Garziak
eta Joan Mari Irigoienek argitaratutako narrazioak

Estilo Liburua
Azalez eta mamiz berritua
Diseinu berria:
- ehundaka adibide argigarri
- dozenaka taula praktikoa
Eduki berria:
- idazkuntza atala (zuzen eta argi erredaktatzeko idazturuak)
- Euskaltzaindiaren azken erabakiak
- nazioarteko izendegi gaurkotuak
- EGUNKARIAREN jokabide-arauak, argi eta zehatz



ONGIZATE EGITASMO BERRIAK

HERRITARREN BEHARREI ERANTZUN NAHI DIETE

Gizarte Ongizate eta Enplegu batzordeak datozen lau urteetarako egitasmoak zehaztu ditu. Batzuk aurretik martxan jarritakoak dira eta enplegu arloa zein gazteen informazio bulegoa berriak dira. Gizarteko sektore ezberdinekin batera egin nahi dute lan.

Gizarte Ongizate egitasmoa aspaldi jarri zuten martxan eta oraingo honetan prentsaurrean herritarrak aukeran dituzten baliabideetat informatu nahi izan dituzte. Diputazio-ko zein Eusko Jaularitzako laguntzen berri eman dute halaber. Besteak beste, egoera larrian dauden familiak laguntzeko asmoa dauka batzordeak. Orain arte hamazazpi familia dira laguntza eskatu dutenak. Lan hori ondo egiteko ikasketxeekin eta osasun zerbitzuarekin daude harremanetan batzordekoak; arazoak ondo ezagutzeko, horiek aztertzeko eta ondoren, laguntza egokia emateko. Urtarriletik aurrera ekingo diote laguntzak emateari. Zaharren beharrak betet-

zeko laguntzak ere eskaintzen ari dira, zaharren egoitzari esate baterako. Orain, eguneko egoitza jartzeko aukera ari dira aztertzen.

LAN MUNDUAN SARTU

Marginazioa aurrikusteko egitasmoa ere martxan dute. Gaur egun, marginatutako herritarrak -drogazaleak gehienak- gizartera txertatzeko saioak egiten ari dira. Era berean Enplegu azpibatzaordea sortu dute, herritarrak lan mundura sartzeko asmotan. Informazioa eta lanbide batzuetarako hezkuntza eskaintzen die batzordeak herritarrei eta herriko egoera kontuan izanda eskainiko ditu aurrerantzeko laguntzak. Bukatzeko, gazteen informazio bulegoa irekiko dute herriko gazteen nahiak eta asmoak biltzeko eta dagozkien laguntzetaz zein ekitaldietaz informatzeko.

Billabona-Amasa

OSKARBI TXIKI ABESBATZA

AXIER VITORIA: "HAURREI MUSIKAZALETASUNA ERANTSI NAHI DIEGU"

Iazko Eguberrietan sortu zen Oskarbi Txiki abesbatza. Hogeita hamar ume hasi ziren eta egun, berrogei hurrek osatzen dute taldea. Gabonak bitartean jaigunetan entsaiatzen ari dira baina gerora egun finko bat jartzeko asmoa dute. Hori da behintzat abesbatzako zuzendaria den Axier Vitoria eta bertako irakaslea den Sofia Quilez-en asmoa.

Hamar eta hamairu urte bitarteko hurrek osatzen dute abesbatza eta astero joaten dira Kultur Etxera edota Fleming eskolara entseiuak egitera. Erritmo alaietako euskal abestiak erakusten dizkiete hurrei eta orain, Gabonetako kantu herrikoiak entsaiatzen ari dira. "Gabonetan herrian aterako gara abesten, hurrei ilusio handia egiten die" esan digute irakasleek eta Errenterian Gabonetan egiten den txapelketan ere parte hartuko dutela aurreratu digute.

Hiru ahots ezberdinek abesten dute, bakoitzak bere saioak egiten ditu eta ondoren, behin abestia ikasita dutenean, saio orokorra egiten dute guztiek batera. Bestalde, "kultura musikala nahiko bajua da" esan digu Sofia Quilez-ek, horregatik ez omen da jendea abesbatzak entzute-ra joaten.

"Haurrak musika mundura hurbiltzeaz gain, Oskarbi helduen abesbatzari jarraipena eman nahi diogu" esan digu Axier Vitoriak eta haurrak abesbatzan parte hartzera gonbidatu ditu.



Axier Vitoria


GABONETAN JANARI BILKETA

Hilaren 18tik 22ra arte egongo dira Malkar taldeko kideak Gurea zinema aretoaren aurrealdean arratsaldeko 6.30etatik 8.00ak arte janaria biltzen. Epe motzean galtzen ez den janaria bakarrik bilduko dute. Jasotako guztia Gurutze Gorriari eta Karitas elkarteari emango diete herriko behartsuen artean bana dezaten.

EGURALDIAREN GORA-BEHERAK

PELLO ZABALA: "DATU UGARI BILDU BEHAR DA EGURADIA AURRIKUSTEKO"

Iriarte Etxean izan genuen Pello Zabala eguraldiaz hitz egiten. Larraulen ere eskaini zuen hitzaldia eta jende asko izan zen batean zein bestean. Ze eguraldi egingo duen, eguraldia nola aurrikusten den, tenporak zer diren eta beste zenbait xehetasunetaz hitz egin zuen Arantzazuko fraide ezagunak.



Pello Zabala eguraldi gizona

dean berriz, eguraldia aldakorra da, eta Nafarroan eguraldia beti bera izaten da".

EGURALDI ALDAKETAK

Euria, barnealdetik datorren haize beroa eta goian dagoen haize hotzaren elkarketak eragiten du Pello Zabala-aren esanetan: "Ekaitza bi haize horien arteko tenperatura ezberdintasun handiak eragiten du" gaineratu zuen. Tximista, lainoen elektrizitateak lurreko elektrizitatearekin topo egitean sortzen da eta ondoren, trumoiak, eurijasa botako duela aurreratzen du.

"Zientifikoak saiatu izan dira lainoei euria eginarazten, baina ez dute lortu" esan zuen Zabalak. Lainoak noiz hustuko diren jakitea zaila dela esan zuen: "Askotan, euria egiteko egun aproposa da eta ez du tantarik botatzen. Basoko pistek eta pinudiek orduan ez dute euria jasotzen eta lurra lehortu egiten da" azaldu zuen eguraldi gizonak. Lur lehorrak ez du euririk hartzen eta ura, ibaiara joaten da berehala.

Azkenik, tenporak eguraldia aurrikusteko erabil daitezkeela esan zuen baina fidagarriak ez direla ere gaineratu zuen: "Ostiraletan eguraldia nahastuta ibiltzen da eta egun honetako tenporetaz gutxi fida!" esanez amaitu zuen hitzaldia Pello Zabalak.

Goizero Euskadi Irratiko irratsaioan ematen ditu eguraldiari buruzko datuak eta aurrikuspenak. "Arantzazun egunero biltzen ditugu eguraldiaren datuak" esan zuen Pello Zabalak, eguraldiaz ikasi beharrekoak bertan ikasi dituela gaineratuz. Inork ez omen daki ze eguraldi egingo duen; datu ezberdinak hartu, irratia eta telebista entzun eta ondoren, aurrikuspina egiten duela esan zuen. Eguraldiaren gora-beherak


ezagutzea oso garrantzitsua dela azaldu zuen: "Aireportuetan, esate baterako, eguraldiari buruzko datuak egunean 24 aldiz jasotzen dituzte".

Euskal Herriko klima ona da Pello Zabala-aren ustetan; euria, haizea eta hotza bere neurrian egiten du. Hala ere, mikroklima delakoak osatzen direla esan zuen: "Goierri aldean eta Gasteizen behelainoa izaten da askotan, inguruko urtegien eraginez. Kostal-

Liraura

KIROL JANTZIAK

Ama Kandida etorbidea, 6
Posta kutxatila 110 - ☎ 59 44 47
ANDOAIN



AUTOEN MEKANIKA OROKORRA ZABALAGA TAILERRAK


Ama Kandida Etorbidea, DENAC Poligonoa, 203. Pabeloia
Telefona 30 01 69 ANDOAIN

BENITO

HARATEGIA URDAITEGIA

KALE NAGUSIA, 22 ☎ 69 11 49
ARROA KALEA, 4 ☎ 69 13 50

BILLABONA



Altzariak

KALETXIKI, 6 ANDOAIN
FAX ETA TELF. 59 07 61



KALE BERRIA, 9 ANDOAIN TELF. 59 35 49

BILLABONA-AMASA

IZ DISKETXEA

BI URTE EGIN BERRI DITU AMASAN

Amasako Etxezarreta baserria zenekoan eraiki zituen orain dela bi urte IZ disketxeak estudio berriak. Baserria eraberritu eta paraje paketsuan musika egiteko txoko lasaia aukeratu zuen. Durangoko euskal musika eta diska azoka aurretiko egunetan bertaratu ginen, eta uste bezala bete-betean aurkitu genituen lanean. Minxoria taldeko bateriak eta kantari izandako *Jama*, IZ-ko arduradunarekin hitz egin genuen bertan euskal musikaz, ekoizpen berrietaz eta musika munduko teknologiaz.

Igaro berri den Durangoko euskal liburu eta musika azoka izan ohi da Euskal Herriko argitaletxe eta disketxe guztien bilgune. Eta IZko kideak ere bilkura horretarako azken ekoizpenak egiten ari ziren aste batzuk lehenago. Sei diska berri plazaratu ditu aurten IZk: Bittor Aiaperen bigarren diska, Amaia Zubiriaren bakarkako lana, Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoaren diska, Jose Ignazio Ansorenaren txistu diska, Zubipeko Swing talde bizkaitararren lan berria eta San Inazio abesbatza donostiar gaztearen Eguberriko kantak. *Jama*-k esan digunez euskal disketxe eta argitaletxeentzat garrantzi handia dauka azokak, salmentak egiteko egun aproposa izateaz gain, jendearekin harreman zuzena izateko aukera daukatelako ere.

ESTUDIOAN LANEAN

Estudioko lanean alde handia dago musikari batzueen eta besteen artean.

Dena den, musikariek gero eta gehiago beren lana ongi prestatuta eraman ohi dute estudioetara, besteak beste, bertan emandako orduen arabera, lana bera garestitu egiten delako. *Multipista* deituriko magnetofonia erabili ohi da estudioetan. Pista batzuetan musikatresna bat grabatzen da, bestea beste batzuetan, eta azkenen nahasketa egiten da. Bateria doinua grabatu ohi da lehenengo, baxua ondoren, gitarra jarraian, teklatuak, pianoa, eta ahotsa azkenean. Nahasketa egin eta bestelako moldaketak egiten dira azkenean efektu bat edo beste lortzeko. Dena den izaten dira doinuak bertan grabatu eta nahasketak kanpoan egin nahi izaten dituztenak.

CD-ROM -AK, ETORKIZUNEN MUSIKA EUSKARRIAK

Hogei urte badituen IZ disketxeak, gainontzeko etxe guztiak bezalatsu, ez ditu dagoeneko diskak ekoizten. Zeharkitutako teknologia dira. Kasetak oraindik Euskal Herrian ugari saltzen badira ere, atzera geratzen ari dira. *Kompakt-diskak* dira gaur egun merkatuan zabalduenak. Hala ere teknologia agudo ari da musika euskarri berriak sortzen, eta *Jama*-ren esanetan, konurtzeko *CD-Rom*-ak eta *minidisk*-ak egongo dira indarrean. *CD-Rom*-ak izugarrizko erakarmena dauka gaur egun ere, oso zabaldua ez egon arren, musika eta irudia batera eskaintzen baititu.

Euskal musikaren salmentak azken urteetan behera egin du. Hala ere, IZk euskal musika eskaintzen jarraitzen du: "Disketxeak ongi saltzen diren ekoizpenak behar ditu, eta ondoren bestelako apostuak egin", dio *Jamak*, "bestela hainbat eta hainbat musika aukera galdu egingo dira, aberastasuna galdu egingo da, eta gazteek *rock*-a baino ez dute ezagutuko".



Multipistan nabasten dituzte doinuak



LANBIDE EZBERDINEN
ARTEKO KOORDINAKETAK

GASA ETA BEROGINTZA

KALE NAGUSIA, 59 - ☎ 59 38 44
ANDOAIN

- ITURGINTZA
- GASA
- BEROGAILUAK
- ELEKTRIZITATEA
- IGETSARITZA



TXERRIKIEN
BANATZAILE
ETA EKOIZLEA

ENPRESEN ZENTRUA
Ama Kandida z/g - 307. Moduloa - ☎ 592923
ANDOAIN

KIXMI JAIO DA

OLENTZERO, ARO BERRI BATEN IRAGARLE

Antzinako euskal paganuak, jentilak, Kixmi deitu zioten Kristo jaioberriari, *tximino* izendatu zuten euren hizkuntzan. Aro berriaren iragarleari berriz, *Olentzero* izena eman zioten. Gizaki berriaren etorrerak, kristautasunaren etorrerak, gizaki zaharren desagertzea ekarri zuen. Dena dela, herriak beti eutsi izan dio bere iraganari, ordura arte ezagututako bizimoduari, eta jentil aroko

hainbat mitok bizirik iraun dute: hala moduz eraldatuta, itxuraldatuta, zenbat sorgin, basajaun eta lami ez ote daude oraindik gure artean. Eguberriaren ateetan gaudela, batek baino gehiagok hausnartuko du Gabon egunen jatorriaz. Ezagutzen dugu Eliza katolikoak emandako azalpena. Hona hemen gure arbasoek kristautasunaren etorrera azaltzeko sortu zuten istorioa, mitoa.



Kixmi jaio berria

Egunen batean ezkutalekutik berriro irteteko itxaropenez sartu ote ziren ez dakigu. Dena dela, ezagun da, ez inguruan ez Euskal Herria osoan ere, geroztik ez dela jentilik jolasean ageri. Gaur egun gizon erraldoi haien oroitzapenez *Gentillari* esaten zaio hilarri handi hari.

On Joxe Miel Barandiaranek jaso zuen kontatutako istorioa Ataunen, bere jaioterrian, eta era horretan ezagutu ahal izan dugu guk gaur Kristo izenez ezagutzen dugun Kixmiren etorrerari gure arbasoek eman zioten azalpena.

KIXMI, EUSKAL MITOLOGIAN PERTSONAIA EZEZAGUNA

Euskal mitologiak baditu aipaturikoa eta beste hainbeste pasarte misteriotsu eta zoragarri, gehienak aspaldi ahaztuak, ezein gutxik iraun baitu oroimenen batean bizirik. Dena den, Josean Morlesín artisau gasteiztarrari eta Andoainen egin berri duen *Kixmi*, euskal mitoen amaiera erakusketari esker, berreskuratu dugu hurbil dauzkagun Eguberri egunetarako ezin aproposagoa den euskal mitoa. Izan ere, *Kixmi* Eliza katolikoak ezarritako Kristo jaioberria da, eta Olentzero, mezuaren iragarle. *Olentzero* hitzetik eratorritako Olentzerok al daketa aroa baino ez baitu esan nahi.

Aralar mendizerran, Argaintxabaletako bizkarrean, auskalo zein urtean -mitoak garai zehaztezinako seme-alabak baitira- jentil batzuk bizi ziren. Auskalo zein jolas mota zera-biltela, jolasean-solasean ari ziren mundu honetako zein besteko ezein kezka arduratu gabe, axolagabe, eta ziur aski, zoriontsu.

Bat-batean ordea, jolasa eten egin zuten: ekialdetik zetorren laino argitsu bat hurbiltzen ari zitzaie la ikusi zuten. Dirdirak ikaratu egin zituen. Izututa beraiekin bizi zen agure jakintsu batengana jo zuten azalpen bila -mitologian zaharrak baitira beti galdera guztien erantzuna eta misterio guztien giltza daukatenak.

Agureak lasai baina kezkatu antzera, zerura begiratu zuen, eta barreneko ahots ezezagunen batek gidatuta zera esan zuen:

- Kixmi jaio da; amaitu da gurea aroa. Bukatu dira nire egunak, hil be-

harra daukat. Jaurti nazazue amildegitik behera.

Jentilak zur eta lur geratu ziren, baina ez zuten agurearen agindua inola ere zalantzan jarri, eta etsipenak erabat jota, amildegia ertzer lagundu zioten zahar ohoretsuari. Agure jakintsua, ertz-ertzean jarrita, hurbiltzen jarraitzen zuen argi itsugarriari begiratu zion, eta bere burua bota zuen hutsartera, belaunaldiz belaunaldi jasotako bere herriaren misterio guztiak beste inori igortzeko astirik hartu gabe, edo nahi izan gabe.

Jentilek erabat aztoratuta mende balderantz egin zuten ihes babes bila, argi misteriotsu hark gauza onik ez zekarrela susmatuz. Arrapaladan iritsi ziren, arnasik gabe, Arrazataran izeneko bailara txikira. Harrizko lauza handi batek estaltzen zuen belardi dotore bat, eta harri pisuaren azpian ehorztea erabaki zuten.

IA HAMAIRU MENDEZ IRAUNDAKO MITOA

I.-VIII. mende bitartean ezarri zen kristautasuna Euskal Herrian Akitanian barrena sartu eta lehenengoz Iruñean kokatuz. Erabateko aldaketa bortitz hari azalpenen bat eman behar izan zioten gure arbasoek eta Kixmiren istorioa sortu zuten euren adimena, euren ametsak, egoera berrira moldatzeko eta bizirik irauteko. Kixmiren istorioa, euskal gizaki kristau berriaren sinbolo, ez da dena dela, jentil aroaren amaierak eragin zuen istorio bakarra. Horra hor bestela Euskal Herria osoko mendi magaletan barreiatuta dauden baselizen sorrerari buruzko istorioak: nonbait, artean mendi garaietan bizi ziren jentilak, haserre, kristau berriak mendietan baselizak eraikitzen zituzten lekuetara harri puska galantak jaurtitzen zituzten elizak txikitu nahian. Jakina, ondorengo mitoak arduratu dira baselizen ezarpenaren eta iraupenaren azalpena emateaz.

EUSKAL MITOEN HURBILTASUNA


Era horretan, istorio bat eta beste bat, mito bat eta beste bat lotuz sortu da, beste herri guztietan bezala, euskal mitologia. Kixmiz gain pertsonaia ugari biltzen ditu euskaldunen sinesmenen, bizimoduaren eta ohituren ardatz izan den euskal mitologiak: ziur aski, naturako indar guztien sinbolo den Mari da guztien artean eza-gunena. Hala ere, eta gure zeruak zeharkatu izan dituen dama lirainaz gain, gure artean bizi izan dira betinork akabatu ez baditu behintzat-Ortzi (zerua), Ozardi (tximista), Mikelats edo Frakazar (ekaitz haizea), Ekhi (eguzki), Ilazki (ilargi), Maju (suge arra), Atarrabi (Mariren seme ona), Mikelats (Mariren seme gaiztoa), Zezengorri edo Zaldigorri (Mariren altxorren zaintzaileak), Basajaun (basoko jauna), Tartalo, Herensuge, Lamiak eta abar luze bat. Beste kultura batzuetan ez bezala, euskal

mitologiako pertsonaia guztiak lurtrarrak dira, gizakien artean jaio eta bizi dira. Josean Morlesinek azaldu digu: "Bi atal dauzka gure mundu honek: azpikoa, pertsonaia mitologikoen bizileku; gainekoa: gizakion bizileku. Harreman estua dago bi munduen artean. Leize zuloak dira bi munduen arteko komunikabide arruntena, eta opariak eta eskaintzak egin ohi dizkiete gizakiek azpilurtarrei harremanetan jartzeko".


OROIMENA ETA UTOPIA

"Inoiz ez diogu geure buruari galdetu desagertuz gero nolako hutsunea utziko luketen mitoek guregan", dio Adolfo Martxena ikerleak. Utziko al lukete gaur egun hutsuneren bat? "Herri bat bere oroimena eta bere utopia da", zioen orain dela gutxi Joxe Azurmendi filosofo eta idazleak. Gure oroimenaren zein atal betetzen dute gure herriko mitoek? Eta beste herrietakoek? Irudimenaz blai eginda, gure mitoek ez ote dute gure herriaren historia gehiegi itxuraldatu?


Josean Morlesinek ohitura zaharren eta mitoen iraupenean sinesten du. "Amaia da hasiera" dio euskal ikasgai zahar batek eta haren ildoari jarraituz Euskal Herriak Kixmi berriak behar dituela uste du gasteiztarrak, mito euskaldunak, utopiaren bati eutsi nahi baldin badiogu behintzat.




Josean Morlesín gasteiztarra



Mari




Maju, Mariren senarra



Olentzero



Sorgin



Akerbeltz

ASTEASU

J.B. AGIRRE IDAZLE ASTEASUARRAREN LEHEN BIOGRAFIA LIBURUA

PELLO JOXE ARANBURU UGARTEMENDIA ALKIZARRA DA EGILEA


Orain dela hilabete inguru aurkeztu zuten Asteasuko udaletxean *Juan Bautista Agirre Elola 1742-1823* izeneko liburua, idazle asteasuarrari buruz orain arte idatzi den lehenengo biografia liburua. Asteasun jaiotako apaiz idazlearen bizitzari buruz ezer gutxi ezagutzen zen orain arte, eta hain zuzen ere, hutsune hori bete asmoz osatu du Alkizan jaiotako Pello Joxe

Aranburu Ugartemendia apaiz eta ikerlariak liburua. Aintzinsolasa egin duen Jose Martin Apaletegi antropologoa ere aurkezpen egunean Asteasun izan zen eta asteasuarraren literatur lana aztertzeko ezezik, apaizaren pentsamendu eta garaiko kultura ezagutzeko ere liburua tresna ezin hobea dela azpimarratu zuten ataundarrak.

"Laburtuz, Juan Bautistaren irudi hau neureganatu dut: alde batetik garaiko apaiz langile, saiatu eta jantzia izan zen, batez ere eliz-gaietan, ez abaztu Valladolid eta Iruñean ere goikasketak burutu zituela; beste aldetik, pertsona irekia herrian, nabiz zenbait garaian apaiz eta agintarien artean eztabaida biziak izan, hitzeko gizon orekatua, herriko jende xehea eskolara-tzearen alde sutsu jokatu zuena, eta bukatzeko bere ideiak eta apaizak defendatzeagatik balaz zauritua eta zokoratua izan zen, baina hori zela eta inoiz ez zen damutu. Asteasuko Agirre Elola, beraz, euskal idazle, klasiko, goren mailako bezain eredugarria izan zen giza eta apaiz arloan ere". Hitz horiekin laburbildu du egileak J.B. Agirre idazle eta apaizaren irudia. Liburuaren izenburupean esaten denez, gizon eta apaiz eredugarria izan zen Asteasukoa, hala ere, orain arte ezer gutxi ezagutzen zen bere bizitzari buruz. Bi liburu eman zituen argitara: *Confesioco eta comunioco sacramentuen gañean eracusaldia* (1803) eta *Jesu-Cristoc bere elizari utzi ciozcan zazpi sacramentuen gañean eracusaldia* (1850).

ERNIOPEAN SORTU ZEN GIPUZKERA LITERARIOA

"XIX. mendera arte euskal literaturak eman duen idazlerik onena", zioen Koldo Mitxelena euskal literaturari buruz eginiko ikerketan. Gipuzkera literarioa XIX. mendearen hasieran Gipuzkoako Artzapezgo Nagusiko batzaren inguruan beren sermoiak euskaraz idazten zituzten herrietako apaizek osatu zutela adierazi dute ikerlariek, eta hain justu, Asteasuko Agirrek ohorezko lekua izan zuen egiteko horretan, bera izan baitzen urte askotan Iruñeako apezpikutzaren Gipuzkoako ordezkari. Gipuzkera literarioak gainera Ernio inguruko herrietan, Beterrin hain justu, izan zituen hastapenak. Hastapen horien lekuko dira Andoaingo Larramendi, Asteasuko Agirre eta Amasako Juan Antonio Ubillos frantziskotarra. Apaiz horien sermoiak izan ziren oinarriak jarri zituzten aitzin lanak, eta



poliki-poliki Gipuzkoako beste herri askotako apaiz idazleen eredu izan ziren: J.I. Gerriko, J.F. Amundarian eta F.A. Otaegi esate baterako.

URTE HAIETAKO ASTEASU

Egileak adierazi zuenez, hasierako asmoa Asteasu herriari buruz eta bertako bizimoduari buruz atal bat idaztea zen eta gainerako bietan idazlearen bizitzaren berri ematea. Hala ere,

Albañileria
USABIAGA

Leku - Ona Etxea, 2 - Iharza auzoa
Tel. 69 35 60 - 69 34 35
20150 ZIZURKIL (Gipuzkoa)

KIROLETARAKO BEHAR DEN GUZTIA

**KIROLAK
EDURNE**

KALETXIKI, 6 - ☎ 59 19 58

ANDOAIN

**Joxe Mari
ITURRALDE**
ZURGINDEGIA

Formika lanak, sarrerako eta barruko ate mota guztiak eta edozein zurgintza lan.

ADUNA - ☎ 69 20 81

Asteasuri buruzko ikerketa lanak gero eta garrantzi handiagoa hartu zuen eta bi ataletan banatu du azkenean liburua. Lehenengoan XVIII. mendeko Aiztondoko bailarako buru zen Asteasuri buruzko xehetasunak ematen ditu: 1.200 biztanle zeuzkan, 160 baserri, 40 kale etxe, baserriarren 2/3ak ziren maizter eta Karlisteden ondorioz ezarritako desamortizazio legea ezarri aurretik bazituen 4 errota eta 100 lur sail.

“EUSKAL LITERATURARI ELIZAK EGINDAKO EKARPENA HANDIA DA”

Apaizaren biografia aztertzen duen atalean familia giroa, bete zituen apaiz lanak eta izan zituen karguak aztertu ditu P.J. Aranburuk. Azken aldean liburuak beste bi eranskin ditu: Agirrek Gipuzkoako literaturari egindako ekarpena jaso du lenenengoan eta bigarrenean euskal kultur arloan Elizak egindako lanaren defentsa eta aldarrikapena egin du egileak.

GARAICO PENTSAMENDUA

Jose Martin Apalategi antropologoak prentsaurrean adierazi zuenez, liburu berri honek Asteasukoaren la-



Iñaki Amenabar alkatea, Imanol Goikoetxea Asteasuko maparen egilea, Pello Joxe Aranburu argitaratu berri den liburuaren egilea eta Jose Martin Apalategi antropologoa

naren balio literarioa aztertzeko baino gehiago, garaiko euskal pentsamendua ulertzeko tresna da. Apalategik Agirren teologia eta saiakera lanen garrantzia azpimarratu nahi izan du: “Euskal pentsamendua ez da literaturatik bakarrik lantzen”, adierazi zuen Ataungoak, “euskal literaturakeriapean jarraituko dugu hori kontuan hartzen ez badugu” gaineratu zuen hitz zorrotzez. Izan ere, orain arte Agirreraren lana literaturaren ikuspegitik baino ez dela aztertu iruditzen zaio. Ondorioz, Alkizako Aran-

bururen lana, beste ezer baino, garaiko euskal pentsamenduaren ikerketa lantzat jo zuen.

Pello Joxe Aranburu Ugartemendia Alkizan jaio zen 1936. urtean. Apaiz ikasketak Donostian egin zituen 1960. urtera arte. Goierrri aldera jo zuen ondoren, eta Goierrriko Euskal Eskolaren eta Maizpide Euskaltegiaren bultzatzaile, sortzaile eta irakasleetako bat izan zen. Aurkeztu berri duen liburuaz gain, beste ikerketa lan batzuk ere eginda dauzka Alkizakoak.

Oremendi Kirolak

AUKERA ZABALA
KIROL ARTIKULUETAN



JUAN BAUTISTA ERRO, 2 - TELF. 59 18 06 ANDOAIN

AURRERA TABERNA

Girorik ederrena gazteriarentzat!!
ZIZURKIL



**XIXORI
BELARDENDA**

DIETETIKA ZENTRUA
KONTSULTA NATURISTA

Ondarreta, 9 - TELF. 59 01 99 - 20140 ANDOAIN

**FRANCISCO MENDIKUTE
HARATEGIA**



KaleTxiki, 15 - ☎ 59 02 58 - ANDOAIN

ANDOAINGO LARRAMENDI IKASTOLA. 1963-64 IKASTURTEA.



G abon Egun bezpera zen eta urte haietan ikastola osatzen zuten neska-mutil guztiak herria kantuz alaitzeko eta bide batez ogerlekoa biltzeko irten ziren kalera. Laborde lantegiko lorategietan eginda dago argazkia, bizkarren gainean eramandako jaiotza lurrean utzi eta atsedean hartzeko unean. Larramendi ikastolako lehenengo eta bigarren urteko ikasleak daude denak batera.

Ikasle gutxi artean; diru beharra berriz, handia. Izaran eta txapeletan jasotako guztia ikastola aurrera ateratzeko erabiltzen zuten urte haietan, eta garaiko andereñoa zen **Maria Jesus Ugaldek** kontatu digunez, herritarrak eskuzabalak izaten ziren. Argazkian ez dauden arren, ikastolako lehenengo bi andereñoak gogoratu nahi izan dizkigute ikastolan: **Mari Paz Artolazabal** eta **Marimi Ugalde**.

Maria Jesus Ugaldek eta **Lurdes Jauregik** lagundu digute beren ikasle eta ikaskide izan zirenen izen-deiturak biltzen.

Lehenengo ilaran eserita ezkerretik eskuinera: Jose Mari López, Pello Gaztañaga, Bixente Huizi, ezezaguna, ezezaguna, Jose Antonio Usandizaga eta ezezaguna.

Bigarren ilaran eserita ezkerretik eskuinera: ezezaguna, Joseba Egibar, Aitor Amutxastegi, Jesus Mari Uranga, ezezaguna, ezezaguna, Ane Miren Olazabal, **Lurdes Jauregi**, ezezaguna eta Lurdes Usandizaga.

Belauniko ezkerretik eskuinera: ezezaguna, Jose Angel Huizi, Xabier Jauregi, Alberto Santa Kruz, Xabier Huizi, Martin Huizi, Josetxo Urdanpilleta eta Pablo Mendizabal.

Zutik lehenengo ilaran ezkerretik eskuinera: Gotzon Huizi (ezkutuan), Nekane Sánchez, Mari Karmen Ganzarain, Agurtzane Egibar, ezezaguna, Edurne Iruretagoiena, Irene Olazabal, Arantxa Huizi, ezezaguna, ezezaguna, ezezaguna, ezezaguna, Nerea Sarasola, Agurtzane Arregi, Ramon Mari Huizi, Iñaki Olazabal eta Esteban Almorza.

Zutik bigarren ilaran ezkerretik eskuinera: Aitor Barandiaran, ezezaguna, Jose Antonio Jauregi, Jesus Aranburu, Pello Olasagasti, Josetxo Igarategi, ezezaguna, ezezaguna, Joakin Esnal, Josu Garmendia, Xabier Zabala, Kontxi Arregi eta Mila Barrutia.

ADELA FERNÁNDEZ

ANDOAINGO GAZTAINA SALTZAILEA



- **Noiz arte egongo zara zure postuan?**

- Santu Guztien Egunean hasten naiz urtero, eta Errege Egunean arte egoten naiz. Hortik aurrera ez dago ia gaztainarik, eta modu onean gordetzea oso zaila da.

- **Zer moduko eguraldia egiten ari da aurten gaztainak saltzeko?**

- Azaroko azkenengo egunak botzak izan dira, eta horrek gaztainak jatera animatzen du jendea. Euri zaparradak berriz, ez dira batere onak izan; jendea ez da kalean gustora ibiltzen.

- **Hotzik pasatzen al duzu?**

- Batere ez; suaren ondoan egonda ez da hotzik narbaritzen. Eta txabolatxoak euritik babesten nau.

- **Noiztik daramazu lan bonetan?**

- Zazpi urte egin ditut.

- **Zure txoko bonetatik jendea kalean gora eta behera ikusteaz gain, zer ikusten duzu?**

- Jendeak loterian asko jokatzen duela, eta tabako izugarri erosten dela. Horrezaz gain haur mordoa hurbiltzen zaie egunean zehar galdezka edo begiratzera: gaztainak nola egiten ditudan ikustea gustatzen zaie.

- **Eta nola egiten dituzu?**

- Sua egin ondoren gaztainak 20 minututan egiten dira eskuaz eragiten ditudan bitartean. Azala muturrean kenduta ekartzen ditut, azala errazago ken dadin. Honak ez du beste misteriorik.


- ...

- **Dena dela, inporta ez bazaizue, eman didazuen aukeraz aprobetxatu nahi dut zerbait esateko...**

- **Esan, ba.**

- Udalarekin nago nabikoa basarre. Orain arte ez nuen zergarik ordaintzen, eta aurten ordaindu egin behar dudala esanez etorri zaizkit. Eta ordaindu behar baldin badut, eskari batzuk ere badauzkat egiteko: ez dakit konturatu diren zabor kontainerrak justu aldamenean dauzkadala, ez bat eta ez bi gainera, biru baizik. Ondo-ondoan jartzen dizkidate. Horrela lan egitea ez da batere atsegina ez niretzat ezta jendearentzat ere. Eta bestalde, nagoen espaloia erabat hondatuta dago. Ez dut uste konpontzea horrenbesteko lana denik.

PERTSONAIA EZKUTUA



Pertsonaia ezkutu izeneko atal honetan saio berri bati ekingo diogu, hau da pertsonaia berria eta sari berria, baina ohiko lehiaketa. Oraingo honetan **Billabonako Basajaun liburudendak** eskaini digu oparia, **1996. urterako agenda paregabea, ekologikoa**, urte berria asmo eta egiteko berriez bete dezazun.

1996

Pertsonaia berriari dagokionez, aurrekoak bezain ospetsua eta ezaguna dela aurreratzen dizuegu. Badakizue, lehiaketan parte hartu nahi baduzue, bidal ezazue gutuna Andoingo Doktor Huizi kaleko 15. zenbakira. Eta zorte on!



TESTU LIBURUAK
(O.H.O. - B.B.B. - L.H. - e.a.)

ESKOLARAKO OSAGARRIAK

JOKO DIDAKTIKOAK

IRAKURKETARAKO LIBURUAK

ALDIZKARIAK

PAPERDENDA

KALE NAGUSIA, 29 ☎ 69 16 51

B I L L A B O N A

LOATZO ASEGURUAK - ASESORIA



ZURE ETORKIZUNA
BIZI ASEGURUA
JOXERRA GARMENDIA MUJICA
IBON GARMENDIA UGARTE

Antxin kalea, 3 behe - ☎ 69 39 13 - Faxe 69 38 43 BILLABONA

MIRARI
ILEAPAINDEGIA

ELIZONDO PLAZA, 2

☎ 590162

ANDOAIN

Agenda

HITZALDIAK

ANDOAIN

Abenduak 22:

EAJ-PNV alderdiak gonbidatuta "Politika plazara" deituriko hitzaldi egitarauari jarraipena emanez **Kepa Aulestia politikariak "Abertzaletasuna: hausnarketa eta etorkizuna"** hitzaldia eskainiko du Kultur Etxean 20.00etan.

ZIZURKIL

Abenduak 20:

Bularreko minbiziari buruzko hitzaldia Kultur Etxean 18.00etan. Hizlaria: Jesus Mitxelena doktorea.

LEHIAKETAK

ANDOAIN

Herri mailako XIII. jaiotza lehiaketa: herriko ikasleek bakarrik har dezakete parte bakarka nahiz taldeka. Jaiotzen tamaina gehinez 50 x 50zm.koa izango da. **Lanak Kultur Etxean aurkeztu beharko dira hilaren 19a baino lehen.** Sari banaketa hilaren 21ean izango da, eta **lanak hilaren amaiera arte egongo dira Kultur Etxean ikusgai.**

MUSIKA

BILLABONA

Abenduak 15:

Billabonako Loatzo irriatiak antolatuta Donostiako **Roadrunners taldearen Rhythm & Blus kontzertua** Aurrera tabernan.

BESTE

ANDOAIN

LA SALLE IKASTETXEAREN

50. URTEMUGA

Abenduak 20:

"**Etorkizuneko lanbide eskolaren eginkizuna, aniztasuna marginazioaren munduan**" deituriko mahai-ingurua ikastetxeko areto nagusian 19.00etan.

Abenduak 22:

Donostiako Easo abesbatzaren emanaldia San Martin parrokian 20.00etan.

ASTEASU

Abenduak 27:

Bilboko Gabonetako haur parakera ibilaldia. Irteera: goizeko 9.00etan. Izenematea: Kultur Etxean.

ZIZURKIL

Santo Tomas egunean Pedro Mari Otaño ikastetxeak antolatutako txistorra jana.

Gabonetako oporretan euskaraz dakiten 3-10 urte bitarteko aurretako ekintzak Kultur Etxean. Izenematea: Aurrera enparanatzako Udal bulegoetan.

IRAKURLEAREN TXOKOA


Gizakiaren nabi eta eziñaren burruka

Pezta bat duna nolabait bizi bamar dituna burrukan bi egunean bamarrak hoge bihurtzerik ote daukan. Bihar ziuurrik ez daukagunez etorkizuna kolokan, ez gaitetzela beraz ibili haundikerizko erronkan, hemedik joanik beste munduan ez da diru beharrikan. (bis)

Bizteko hainbat ez daukatenak zail da bizitzen gustora asko dutenak baldin badabiltz sartuz al duna kolkora, onar eziñez denok bezela joan behar dunik zulora. Behin lagun batek esan zidana noiznabi datorkit gogora zurikeri eta hitz jokoekin ez litekek joan inora. (bis)

Joxe Mari Iturralde
andoaindarra

KOMIKIA




saiakera bilduma dagoeneko salgai

- 1 *Manuel Larramendi: bizitza eta obra*
- 2 *Gerra Zibila andoaindarren begietatik*



2.000 pta



1.500 pta

Zure liburudendan eros ditzakezu
Erne bazkideak: Bazkunean bertan eros ditzakezue!



KULTUR
BAZKUNAREN
ARGITALPENAK

GURE ESPEZIALITATEA:

BIDEOGINTZA

- Bideogintza industrialia
- Ezkontzak
- Bideo zinten arteko kopiak
- Zinetik bideora kopiak

ARGAZKIGINTZA

- Anpliazioak
- Zuri beltzeko errebelatua
- Estudioko argazkiak
- Ezkontzak

EGUBERRI jai
zoriontsuak opa
dizkizuegu

FOTO-BIDEO-ARGAZKI


KALE NAGUSIA, 19 - behea
☎ 30 07 27 ANDOAIN

B
I
K
O
I
T
Z

LEITZARAN
F I N K A K

EGUBERRI JAI
ZORIONTSUAK
ETA
URTE BERRI ON

KALE NAGUSIA, 20 behea
Tel - Fax 59 18 58
ANDOAIN



OGI ZURI

*ogi berezi eta
artesanak
etxerainoko
zerbitzua*

OKINDEGIA, S.L.
Lizarratekoa, 32 / Elizmendi auzoa.
20159 ASTEASU / ☎ 693294 - 691896

ZORIONAK
OGI-GOXO



- TARTAK • IJITO BESOA • PASTELAK
- TEILAK-ZIGARRILOAK
- HOJALDREAK • MAGDALENAK

Kale Nagusia, 26 - ☎ 693294 - BILLABONA